



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 27a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00017. 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-23/ITP-00002. Interpelazioa, herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoan arreta euskaraz jaso dezaten Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (4. or.).

—10-23/MOC-00006. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Muesko presa erromatarren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu ditzan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—10-23/PES-00019. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikas-taroaren antolaketari dagokionez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak izandako kolaborazio eta koordinazio mailari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (6. or.).

—10-23/PES-00020. Galdera, mediku-lanpostuari dagokion A mailako soldata bakarrik jasotzen duten medikuen kopuruari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).

—10-23/PES-00021. Galdera, Nafarroako osasungintzako eskusibotasun-araubideari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).

—10-23/PES-00022. Galdera, Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko Programari atxikitako enpresa-kopuruari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (8. or.).

—10-23/PES-00023. Galdera, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan agertutako pindari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (9. or.).

- 10-23/PES-00024. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Familia-partaidetzako batzordearen bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (9. or.).
- 10-23/PES-00025. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Haur-partaidetzako batzordearen bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/PES-00026. Galdera, 2018-2021 aldirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko amaierako txosten bat egiteari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/PES-00027. Galdera, Nafarroako II. Boluntarioritza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/PES-00028. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Zuzendaritza-batzordearen bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- 10-23/PES-00029. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Sektorearteko batzordearen bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- 10-23/PES-00030. Galdera, eskusibotasuna duten profesionalek osagarria arautzen duten baldintzak betetzen dituztela bermatzeko kontrol-sistemari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20220051. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila). Izangai onartuen behin behineko zerrenda (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00017. 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat atzeman da 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, zeina 2022ko abenduaren 30eko 153. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egin behar da:

Honako hau esan ordeztu:

520001 51200 4609 313910 "(E) "Hitzarmena Pacto Persona Mayor San Juan/Adinekoaren

Aldeko Akordioa Donibanerekin", 42.000 euroko kreditua duena.

Honako hau esan behar du:

520001 51200 4819 313910 "(E) "Hitzarmena Pacto Persona Mayor San Juan/Adinekoaren Aldeko Akordioa Donibanerekin", 42.000 euroko kreditua duena.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/ITP-00002. Interpelazioa, herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoan arreta euskaraz jaso dezaten Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko interpelazioa, herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoan arreta euskaraz jaso dezaten Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaileak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko interpelazioa egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Interpelazioa, herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoan arreta euskaraz jaso dezaten Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruz.

2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-23/MOC-00006. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia- tzen da Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu ditza.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu ditza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratu dezan, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaida dadin:

Muesko presa erromatarraren aztarnategiak ondare-balio handia du. Espainian hobekien kontserbaturik dagoen presetako bat da. Hori horrela da ondare arkeologikoa osatzen duten gainerako presa erromatar asko ondorengo mendeetan

zaharberritu eta aldatu zituztelako zerbitzua ematen jarrai zezaten. Muesko presa, aitzitik, erromatarren garaian abandonatu zuten, eta, hortaz, duela 2.000 urte eraiki zutenean bezala geratu da.

K.o. I. mendean eraiki zuten. Berrogeita hamar metro luze da, bi metro baino gehiagoko lodiera eta bost metroko sakonera ditu, eta Odrón ibaia-
ren urak presatzen zituen, Berrotza ibarraren zati bat urpean utzita. Dirudienez, Calagurris hiri erromatar garrantzitsua hornitzen zuen sistema hidraulikoaren parte zen. Oso litekeena da K.o. 11. mendean gertatutako mazela-irristaketa batek estali izana Muesko presa erromatarra, eta, gainera, Calagurrisen gainbehera hasi zen; badirudi horiek izan zirela presa abandonatuta uztearen kausak.

Presaren kontserbazioa aparta da. Hein handi batean, hori zor zaio duen eraikuntza sendoari, eta aztarnategi arkeologiko horren garrantzia handitzen duen xehetasuna da presaren ur-ema-
ria erregulatzen zuen dorrea kontserbatzen dela. Orain arte aurkitu direnen artean, hobekien kontserbatuta dagoena da. Ur-jarioa ireki eta ixten zuten egurrezko egitura ere kontserbatzen du.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu Muesko presa erromatarraren aztarnategia eta ingurua eta Erdi Aroko errota Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko espedienteak, barne hartuko dituen urmaelaren ontzia eta behar besteko perimetro bat, ondasunari eragin diezaiokkeen balizko eraikuntza, linea elektriko eta beste edozein elementutatik babesteko aztarnategia.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

F saila:
GALDERAK

10-23/PES-00019. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren antolaketari dagokionez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak izandako kolaborazio eta koordinazio mailari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren antolaketari dagokionez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak izandako kolaborazio eta koordinazio mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Mondragón Unibertsitateak Lekarozko Enpresa-campuseko CILean emanen duen Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren antolaketari dagokionez, zer kolaborazio eta koordinazio maila egon da Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren eta Garapen Ekonomikorako Departamentuaren artean?

Nafarroan, 2023ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

10-23/PES-00020. Galdera, mediku-lanpostuari dagokion A mailako soldata bakarrik jasotzen duten medikuen kopuruari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, mediku-lanpostuari dagokion A mailako soldata bakarrik jasotzen duten medikuen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaien:

2018, 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetan Osasunbidean lanean ari ziren zenbat medikuk jaso zuten lanpostu horri dagokion A mailako soldata bakarrik?

Aipatu urte horietan, zein izan zen Osasunbidean lan egiten duten medikuen batez besteko soldata?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-23/PES-00021. Galdera, Nafarroako osasungintzako eskusibotasun-araubideari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako osasungintzako eskusibotasun-araubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren baze-

sean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun alorreko sindikatu jakin baten eskaeretako bat da langile fakultatiboaren eskusibotasuna kentzea; dirudenez, Osasun Departamentua neurri hori aplikatzeko prest dago.

Egoera honetan, gure ustez ahalik eta informazio zehatzena eduki behar dugu. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Oinarrizko osasun laguntzako taldeetako medikuei eta langile fakultatibo espezialistei dagokien, zenbat profesional ez daude eskusibotasun-araubidearen mende?

Zer osasun-zentrotan ari da lanean horietako bakoitza? Zer espezialitateetan? Arreta-jardueraz gain, horietakoren batek burutzaren bat edo erantzukizuneko karguren bat al du? Eskusibotasun-araubidearen mende ez dauden profesional horietatik, zenbat ari dira besteren kontura lanean, eta zenbat norberaren kontura?

Osasun Departamentuak ba al du nolabaiteko azterlanik, edo ezagutzen al du beste Osasun sistema batzuetako esperientziarik, erakutsi edo justifikatzen duena eskusibotasuna kentzeak lagundu egiten duela herritarren arreta hobetzen, osasun publikoan jarduera handitzen edo itxarotzerrendak murrizten?

Osasun publikoa indartzea beharrezkoa den testuinguru batean, Osasun Departamentuak uste

du argudio onargarriak eta arrazoituak daudela eskusibotasuna kentzearen alde egiteko?

Osasun Departamentuak langile fakultatiboek eskusibotasuna kentzea erabakiko balu, zein arau- edo lege-mekanismo erabiliko luke horretarako?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-23/PES-00022. Galdera, Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko Programari atxikitako enpresa-kopuruari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko Programari atxikitako enpresa-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Zenbat enpresa batu dira Enpresaren kudeaketan prebentzioa txertatzeko programara?

Zenbat bilera egin dira enpresekin programa azaltzeko? Zer enpresak parte hartu dute bilera horietan?

Egin al da azterlanik osasun-agentearen balizko figura sortzearen bideragarritasuna eta egokitasuna neurtzeko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

10-23/PES-00023. Galdera, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan agertutako pintadari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan agertutako pintadari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte

López jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Urtarrilaren 11n, goizean, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan tamaina handiko pintada bat agertu zen, Gazte Koordinadora Sozialistak antolatutako manifestazio batera dei egiten duena, urtarrilaren 28rako. Gaur, urtarrilak 17, oraindik ez dute ezabatu pintada.

Zergatik atzerapen hori?

Ikastetxearen zuzendaritzak pintada horren berri eman al zion Departamentuari? Zer egunean egin zuen?

Noiz ezabatu behar duzue pintada? Edo iragartzen duten ekitaldia egin arte itxoin behar duzue?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

10-23/PES-00024. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Familia-partaidetzako batzordearen bilerei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Familia-partaidetzako batzordearen bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan

Integralaren (2017-2023) Familia-partaidetzako batzordeari dagokionez, zenbat aldiz bildu da, noiz eta zer gai-zerrendarekin?

2.- Nor eta zer esparruren ordezkari gisa gonbidatu da bilkura horietako bakoitzera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00025. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Haur-partaidetzako batzordearen bilereki buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Haur-partaidetzako batzordearen bilereki buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Haur-partaidetzako batzordeari dagokionez, zenbat aldiz bildu da, noiz eta zer gai-zerrendarekin?

2.- Nor eta zer esparruren ordezkari gisa gonbidatu da bilkura horietako bakoitzera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00026. Galdera, 2018-2021 aldirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko amaierako txosten bat egiteari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, 2018-2021 aldirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko amaierako txosten bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Gobernuak ba al du asmorik amaierako txosten bat egiteko, 2018-2021 aldirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta jarraipena egite aldera?

2.- Hala baldin bada, ebaluazio hori egin da jada?

3.- Ezezkoan, zertan da prozesua eta noizko espero da ebaluazioa eskura egotea?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00027. Galdera, Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Egin al da jada Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioa –dokumentu horretan 2022ko abendurako aurreikusita zegoen–?

2.- Ezezkoan, zertan da prozesua eta noizko espero da ebaluazioa eskura egotea?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00028. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Zuzendaritza-batzordearen bilereari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Zuzendaritza-batzordearen bilereari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Zuzendaritza-batzordeari dagokionez, zenbat aldiz bildu da, noiz eta zer gai-zerrendarekin?

2.- Nor eta zer esparruren ordezkari gisa gonbidatu da bilkura horietako bakoitzera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00029. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Sektorearteko batzordearen bilereari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Sektorearteko batzordearen bilereari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralaren (2017-2023) Sektorearteko Batzordeari dagokionez, zenbat aldiz bildu da, noiz eta zer gai-zerrendarekin?

2.- Nor eta zer esparruren ordezkari gisa gonbidatu da bilkura horietako bakoitzera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00030. Galdera, eskusibotasuna duten profesionalen osagarria arautzen duten baldintzak betetzen dituztela bermatzeko kontrol-sistemari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, eskusibotasuna duten profesionalen osagarria arautzen duten baldintzak betetzen dituztela bermatzeko kontrol-sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintzeko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentua negoziatzen ari da Nafarroako Medikuen Sindikatuak deitutako greba ekiditeko. Sindikatu horrek egiten duen eskaerako bat eskusibotasun-osagarria kentzea da. Langile kualifikatu horiek Nafarroako osasungintza publikoan bakarrik lan egin ahal izatea bermatzen du osagarri horrek, zeina 11/1992 Foru Legean eta garapenerako araudian araututa baitago.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

• Zer kontrol-sistema dago eskusibotasuna duten profesionalen osagarria arautzen duten baldintzak betetzen dituztela bermatzeko? Ba al dago koordinaziorik autonomia-erkidegoen artean, ekiditeko profesional horiek baimenduta ez dauden jarduerak gauzatzea beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europan?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20220051. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

Izangai onartuen behin behineko zerrenda

7/2023 Ebazpena, urtarrilaren 24koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda.

Heldurik Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila) merezimenduen lehiaketa bitartez betetzea helburu duen enplegu-egonkortze deialdi salbuespenezkoaren 5. oinarriari (2022ko abenduaren 27ko 259. NAO n argitaraturiko deialdia), ERABAKI DUT:

1. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hauek onestea:

a) Komunikazio-teknikari lanpostu hutsa (A maila)

Izangai onartuak:

AMORENA ITURRI, MIKEL
ARMENDÁRIZ HUGALDE, BELÉN
AOCENA CASTILLO, SILVIA
AOCENA MARTÍNEZ DE IRUJO, MARÍA MARTA
ARTEAGA VILLAR, JUAN MARÍA
AUZA SÁNCHEZ CHIQUITO, MARÍA BELÉN
BERUETE ESAIN, MARÍA ISABEL
ESPARZA GARRIDO, JORGE
GARCÍA RODRÍGUEZ, ZUBEROA
GARRIDO ENCINAS, MARÍA ARÁNZAZU
IBÁÑEZ ELIZALDE, AINHOA

LATORRE IZQUIERDO, LAURA
MARTINEZ ITOIZ, JOSEBA
OROZ IRIBARREN, MARIA CARMEN
OSÁCAR AIZPÚN, RAQUEL

Izangai baztertuak:

Ez dago izangai bazterturik.

b) Administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu hutsa (B maila)

Izangai onartuak:

AGUIRRE PÉREZ, ELENA
ALDUNTZIN NAVARRO, ANA ISABEL
AOCENA MARTÍNEZ DE IRUJO, MARÍA MARTA
BERMEJO ADRIÁN, ALBERTO
CUELLO OTERO, PAULINA MARÍA
DÍAZ DE CERIO PASTOR, JOSÉ CARLOS
DÍAZ RAMOS, MARÍA ÁNGELES
ERBITI IRISARRI, LEIRE
GARCÍA FUENTES, MARÍA DOLORES
GURBINDO IZCO, AMAYA
HUICI BAZTARRICA, AITOR
IDOATE PLATERO, BEATRIZ
LAPIEZA ANTÓN, MARÍA DEL MAR
MARTÍNEZ CÍA, ANA
MORIONES GARCÍA, MARÍA ISABEL
OSCÁRIZ ERASO, DIANA
PALMA ROMERO, FRANCISCA
PLANES ARAGONÉS, NURIA
SORIA MARTÍN, CHRISTIAN

Izangai baztertuak:

Ez dago izangai bazterturik.

c) Mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu hutsa (C maila)Izangai onartuak:

ARTIEDA ZUGASTI, EDUARDO (*)
 BERMEJO HUELVA, ADRIÁN
 BUJANDA AZCONA, JOSÉ LUIS
 CALVO HERRADOR, VÍCTOR
 ECHALECU CASTAÑO, DAVID (*)
 ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO JOSÉ
 ERBITI IRISARRI, LEIRE
 FERNÁNDEZ SANZ, EMILIO JOSÉ
 FLAMARIQUE ÁLVAREZ DE EULATE, IÑIGO
 GALECH LESACA, RAÚL
 GIL SÁNCHEZ, IÑIGO
 GÓMEZ MARCOS, ENRIQUE
 HUARTE ARZOZ, ÁNGEL MARÍA
 MITXAUS NIETO, IGOR (*)
 PAGOTO ECHEVERRÍA, JUAN CARLOS
 RUATA MARTÍN, TOMÁS
 RUEDA DÍEZ, DANIEL
 SORIA MARTÍN, CHRISTIAN

(*) Izena emateko bere eskabidearen zuzenketa egin beharko du, bere NANaren, pasaportearen edo beste identifikazio-dokumentu ofizial baten kopia aurkeztuz, deialdiko 3.5 oinarriak xedatzen duenarekin bat.

Izangai baztertuak:

Ez dago izangai bazterturik.

d) Gelazain-lanpostu hutsa (D maila)Izangai onartuak:

BERMEJO HUELVA, ADRIÁN
 BUJANDA AZCONA, JOSÉ LUIS
 CAPARROSO ULTRA, FRANCISCO JOSÉ
 CHOCARRO LOSANTOS, RICARDO
 DÍAZ DE CERIO PASTOR, JOSÉ CARLOS
 ECHALECU CASTAÑO, DAVID (*)

ECHEVERRÍA BELOQUI, MARÍA ANTONIA
 ERBITI IRISARRI, LEIRE
 ESNOZ LARREY, ANA ISABEL
 FERNÁNDEZ SANZ, EMILIO JOSÉ
 FLAMARIQUE ÁLVAREZ DE EULATE, IÑIGO
 FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, JOSÉ IGNACIO
 GALECH LESACA, RAÚL
 GIL SÁNCHEZ, IÑIGO
 PÉREZ ÁLVAREZ, MARÍA LUISA
 RAMÍREZ PÉREZ, BELÉN
 RUATA MARTÍN, TOMÁS
 SAN JOSÉ GONZÁLEZ, ANA CRISTINA
 SANTAMARÍA GASTÓN, ANDRÉS
 SORIA MARTÍN, CHRISTIAN

(*) Izena emateko bere eskabidearen zuzenketa egin beharko du, bere NANaren, pasaportearen edo beste identifikazio-dokumentu ofizial baten kopia aurkeztuz, deialdiko 3.5 oinarriak xedatzen duenarekin bat.

Izangai baztertuak:

Ez dago izangai bazterturik.

2. Honako hauek dira Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak deialdi honetarako epaimahai kalifikatzailean izendatutako kideak:

- Titularra: Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

- Ordezkoa: Fermín Erbiti Zabalza jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako kazetari itzultzailea.

3. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hamar egun balioduneko epean, interesdunek zilegi izanen dute egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezte behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik egin badute, haiek zuzentzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

